

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

**ZIURTATZEN DOT:**

2009ko maiatzaren 6an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

**7.- UDALEKU IREKIAK 09 ZERBITZUA EMOTEKO KONTRATUA BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.**

**Xedea**

Udaleku irekiak 09 zerbitzua emoteko kontratua behin-behinekoz esleitzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: Azkeneko urteetan udaleku irekiak antolatu dira Bermeon, eta oso arrakastatsuak izan dira. Ekintza hau Gazte Planetik bultzatzen da.

Bigarrena: 2009ko martiaren 18an Tokiko Gobernu Batzarrak udaleku irekien zerbitzua emoteko zerbitzu kontratuari jagokozan administrazio baldintzak eta baldintza teknikoak onartu ebazan eta jagokon aurrekontua 30.100 €-koa da, BEZa kanpo. BEZari jagokon zenbatekoa 2.107 €-koa da.

Hirugarrena: 2009ko martiaren 30ean Suspergintza Elkarteari, MB 2000 Zerbitzu soziokulturalak eta Batun-Batun aisialdi kultur elkarteari gonbidapenak egin jakezan udaleku irekien zerbitzua emoteko prozedura negoziatuan parte hartu eien.

**Argudioak**

Lehenengoa: 2009ko apirilaren 7an Batun-Batun aisialdi kultur elkarteak proposamena aurkeztu eban.

Bigarrena: Dagoan proposamen bakarra aztertu ondoren, Kultura batzordeak egokitzat jo dau.

**Erabagia**

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Udaleku irekiak 09 zerbitzua emoteko kontratua Batun-Batun aisialdi kultur elkarteari behin-behinekoz esleitzea.

BIGARRENA: Udaleku irekien kontratua 32.207 €-an esleitzea. Prezioa, 30.100 €-koa da, gehi 2.107 € (BEZa).

HIRUGARRENA: Batun-Batun aisialdi kultur elkarteak lizitazio baldintzak beteten dauzanez, proposamena aurkezteko konbita bialduko jako.

LAUGARRENA: Behin-behineko esleipenaren erabagiaren jakinarazpena jaso eta biharamonetik zenbatzen hasita, Batun-Batun aisialdi kultur elkarteak 15 laneguneko epean, behin betiko bermea jarri beharko dau, hau da, 1.505 €.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2009ko maiatzaren 11n.

ONETSIA  
ALKATEA